



## PRENTSA-OHARRA

# *Marko Makako* haurrendako filma euskaraz eta Tom Hanksen gorabeherak Saudi Arabian: horra Udalaren zinema-proposamena asteari amaiera emateko

Aste honetako azken bi proiektzio hauekin, 14 film eman dira honezkero Iruñeko Udalaren zinema-gauetan

Atari zabaleko zinemaldiari amaiera emateko, aste honetan Maiteminduen parkea eta San Frantzisko plaza izango dira agertoki. Aipatu lehenengo lekuan, *Marko Makako* haurrendako filma emango da euskaraz, eta bigarrenean, Ekialde Ertainean girotutako komedia dramatiko bat, alemaniarra, nahiz eta Tom Hanks iparamerikarra duen protagonista: *Esperando al Rey*. Biak 22:00etan emango dira, ohi bezala.

Ostegunean, Marko Makako izanen da protagonista, krimenak ebazten dituen polizia izatearekin amestu baina, errealitatean, hondartzako ofizial xumea besterik ez den pertsonaia, non, eta ezer gutxi gertatu bide den uharte tropikal batean. Proiektzioa –Jan Rahbek zuzendariaren film daniarra, 2015ekoa– edozein adinetako ikusleentzat da, eta euskaraz emango da. Gutxi gorabehera 80 minutu iraungo du.

Ostiralean, San Frantzisko plazan *Esperando al Rey* filma (Alemania, 2016, 96 minutu) proiektatuko da, Dave Eggers idazle iparamerikarraren *A Hologram for the King* eleberriaren egokitzapena. Eggers ezaguna da, baita ere, *The Circle* izeneko lanagatik. Deigarria da filma alemaniarra izaki, Tom Hanks aktorea izatea protagonista. Beste behin ere, gizon arrunt bat hezurramitzen du: krisi ekonomiko eta familiarra bizi duen enpresari estatubatuarra, Saudi Arabiara joan eta negozio-idea bat proposatzen duena. Gauzak, baina, ez dira hark espero bezala aterako.

### ZINEMA GAUAK. 22:00ETAN

---

**Abuztuak 17, osteguna.** Maiteminduen parkea (Arrotxapea)

- *Marko Makako* (euskaraz)

Edozein adinetako ikusleentzat.

**Abuztuak 18, ostirala.** San Frantzisko plaza

- *Esperando al Rey*

Ez da gomendagarria 12 urtetik behekoentzat.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 16an